

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**50/2025 Foru Agindua, otsailaren 14koa, zeinaren bidez adierazten baita hasiera eman zaiola Nafarreteko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze prozedurari eta hasiera batean iraungita zegoen prozedurako egintzak eta izapideak mantentzea xedatzen da**

Otsailaren 12ko 45/2025 Foru Aginduaren bidez, iraungitatzat jo zen Nafarreteko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze prozedura, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluetan eta Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Ondorioz, 2025eko otsailaren 13an, Mendi Zerbitzuak Nafarreteko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze prozedurari hasiera ematea proposatu du, 36/25 espediente-zenbakiarekin.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta kontuan hartuta zer xedatzen duten Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren dagozkien artikuluek, eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak —Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatua— ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.— Hasiera ematea Nafarreteko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze prozedurari, 36/25 espediente zenbakiarekin.

Bigarrena.— Agintzea iraungitako prozedurako egintza independenteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek gehi daitezela, besteak beste, interesdunek eduki ditzaketan eskubideak egiaztatzeko aurkeztutako agiriak, neurketen aktak, mugaketako plano topografikoak eta aurkeztutako erreklamazioak.

Hirugarrena.— Adieraztea mugaketa egoeran dagoela Nafarreteko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoa. Mugaketa horrek ez du inolako muga berezirik ezartzen.

Laugarrena.— Iragartzen da ezen, iraungitako espedientearen mugakideek aurkeztu dituzten agiriak berrabiarazitako prozedurara txertatuko diren arren, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera 10 eguneko epean, bai mendiaren edo mendiaren zati baten jabetzarako eskubidea dutela adierazten dutenek bai mugakide izanik eduki dezaketan eskubidea egiaztatu nahi dutenek kasuan kasuko agiriak aurkeztu beharko dituztela, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari zuzenduak, telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan edo beste administrazio publiko baten erregistro elektronikoan, edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001, Vitoria-Gasteiz), Arratzua Ubarrundiako Udalaren bulegoetan (Uribe kalea 24, 01520, Dura), edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako beste edozein erregistrotan.

Bosgarrena.– Iragartzen da neurketa osagarria egingo dela Legutioko udalerriko 1 poligonoko 823, 824, 825, 826, 827, 828, 834 eta 1.399 katastro lurzatien mugan. 2000ko irailaren 13an aurkeztutako erreklamazioari dagokion muga da. Aurkeztutako erreklamazioa ebazteko, lur neurketa bat egingo da 2025eko martxoaren 12an, 10:30ean, eta elkargunea Elosuko eliza izango da.

Seigarrena.– Otsailaren 15eko 4/2023 Foru Arauak gehitutako Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikulua 6. apartatua ezarritakoaren arabera, mugaketa prozedura ebazteko gehieneko epea 24 hilabetekoa da, eta epe hori igarotzen bada dagokion ebazpena eman eta jakinarazi gabe, iraungi egingo da eta jarduketak artxibatzea erabakiko da.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau prozedurako interesdun guztiei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 14a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**NOEMI AGUIRRE QUINTANA**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**DAVID FERNANDEZ SARABIA**